

Prentsa-oharra

Erreka eta Teknikerrek aliantza estrategikoa sortu dute, bien gaitasunak bateratu eta I+G+B sustatzeko

- ▶ *Teknikerrek honelako epe luzerako akordioen alde egiten du, industriari eta merkatuari balio handia ematen baitiete*
- ▶ *Azken urteotan, I+G+B-ri lotuta, harreman estua izan dute bi enpresek, beraz, orain hitzarmena sinatu dute beren ezagutzetan sakontzeko eta epe luzerako elkarlanari ekiteko*

(Eibar, 2020ko urtarrilak 31).- Ekonomia lehiakorren motor nagusietako bat da I+G+B-n inbertitzea; gainera, ezinbestekoa da herrialdean ezagutza sortzeko eta berrikuntza sustatzeko, eta, horrenbestez, gizarte-oparotasuna erdiesteko.

Tekniker bezalako zentro teknologikoek industriari laguntzen diote berrikuntzaren bidetik joaten eta lehiakortasuna hobetzen; horrek benetako onurak sortzen ditu enpresen ehunduran eta, azken finean, herrialdearen hazkundera.

Tekniker urteak daramatza formulen bila enpresekin epe luzera estrategikoki elkarlanean aritzeko, haiekin batera balio handiagoko produktu eta zerbitzuak garatzeko; horrekin industria eta merkatu lehiakorrak lortu nahi ditu, irabaziak sortu eta herrialdearen motor izan daitezen.

Testuinguru horretan kokatzen da zentro teknologikoak [Erreka](#) kooperatibarekin sinatu duen hitzarmena. Gipuzkoako enpresa *Fastening Solutions*, *Plastics* eta Sarbide Automatikoaren alorretan espezializatuta dago, eta orain elkarlan teknologikorako hitzarmena sinatu du Teknikerrekin. Horren bitartez, Teknikerrek konpromisoa hartu du enpresa horri bere I+G+B-ko plan estrategikoa garatzen laguntzeko.

Hitzarmena atzo sinatu zuten, Eibarren, zentro teknologikoaren egoitzan. Ekitaldian izan ziren Teknikerreko zuzendari nagusi Alejandro Bengoa eta Erreka taldeko zuzendari nagusi Antton Tomasena.

Elkarlan hitzarmenaren arabera, Teknikerrek prozesuen automatizazioko, kalitatea kontrolatzeko ikuskatze-sistemetako, elektronika txertatuko eta makinek zein osagaiek beren bizi-ziklo osoan (diseinua, fabrikazioa, balidazioa, jarduketa eta mantentzea) duten portaerako ezagutzak partekatuko ditu enpresarekin.

Errekak enpresa ibilbide luzea egin du, eta berrikuntzaren eta garapenaren alde egin du beti. Horri esker, negozio-unitateak sortu ahal izan ditu autonomia eta gaitasun nahikoarekin, nazioarteko merkatuetan gero eta presentzia handiagoa izateko. Kooperatibak 400 langile inguru ditu, eta oraindik hedatzen ari da, duela gutxi lantegi berria ireki baitu Txinan.

Errekak bat egin ondoren, Teknikerren erakunde laguntzaileak hogeitasei baino gehiago dira jada, zehazki, honako hauek: [Aernnova](#), [Alfa Lan](#), [Doimak](#), [Egile Corporation](#), [Etxetar](#), [Fagor Automation](#), [GH Cranes & Components](#), [Goialde](#), [Goizper](#), [Ibermática](#), [iLine Microsystems](#), [Jaureguizar](#), [Juaristi](#), [Kutxabank](#), [Lazpiur](#), [Maher Holding](#), [Maier](#), [Masermic](#), [Ojmar](#), [ONA](#), [Pasaban](#), [Siemens Gamesa](#), [Ulma Handling Systems](#), [Zayer](#) eta [Zigor](#).

Teknikeri buruz

Teknikerrek 40 urte inguruko esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen Ingeniaritzan, Produktu-ingeniariatzan eta IKTetan), eta horrek abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen dio. Zentro teknologikoa Basque Research and Technology Alliance (BRTA) partzuergo zientifiko-teknologikoko kidea da.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

Tekniker | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Ane Roteta

ane@guk.es | Tel. 690 212 067

////////////////////